

BERE URTEBÜRÜ EGÜNEAN, Pedrok balu bat üken züan. Ez zen hortaz botzik agertü zeren eta larrü xuri eta beltzezko bat nahi beitzüan, futbolari profesionalek joiten züen horietarik bezalakoa. Plastikozko hau arinegi üdüritzen zeion.

_ Bürüarekin gol bat sartü nahi badüt, balua aidatzen da. Hain arina da non txori bat üdüri beitü.

_ Hobe, erran zeion aitag, ez dük hola bürüko minik ükenen.

Eta esküaren jestü batez isiltzeko keinüa egin zeion, irratia entzün nahi beitzüan.

Bazen hilabete bat karrikak soldadoz beterik zirela eta Pedro ohartü zen bere aita arrastiri güziez haboroenik maite züan besalkian jarten zela, posta berdearen antena altxatzen züala eta biziki hürrüntik heltü ziren berriak arraheinki entzüten zütüala. Noiztenka lagün zonbait jiten ziren, lürrean etzaten, tximiniek bezainbat erratzen eta beharriak txüt egoiten postari bürüz.

Pedrok amari galtatü zeion:

_ Zergatik beti behatzen düzüe herotsez bete irrati hori?

_ Erraiten düana interesgarri delako.

_ Eta zer erraiten dü ?

_ Gaüza zonbait gütaaz, gure herriaz.

_ Zer gaüza mota ?

_ Agitzen diren gaüzak.

_ Eta zergatik hain gaixki entzüten da ?

_ Botza izigarri hürrüntik heltü delakoz.

Eta Pedro, erdi lo, leihotik konkortzen zen asmatü nahiz irratiko botza nonko hürrüneko mendixkatik heltzen ote zen.

ÜRRIETAN, Pedro aüzoko futbol partidetako vedettea izan zen. Hegian zühain handiak zütüan karrika batetan txostakatzen zen, eta haien itzalean lasterka ebiltea üdan errekan mainatzea bezain goxo zen. Ostoen firfirak sentiarazten zeion Pedrori kirol zelai tapatü batetan zela eta han esküzartatzen züela Daniel epizeriako semearen pase hon bat hartzen züalarik; ordüan Pele bezala lerratzen zen defentsako erraldoien artean, eta ateala xüxen joiten züan gol baten sartzeko.

_ Gol ! zeioen oihüka Pedrok, eta lasterka joaiten zeion besoetan tinkatzera taldeko lagünak, hauek aidean altxatzen züela, ezen, nahiz bederatzi urte üken, ttipia eta arina zen Pedro.

*

Hortarako züen denek “ttipia” deitzen.

_ Zergatik hain ttipia hiz ? zeioen zonbait aldiz haren ertzoarazteko.

_ Ene aita ttipia delakoz eta ene ama ttipia delako.

_ Eta segur ere hire aitañi eta amañi ere, zeren ttipi-ttipia beihiz.

_ Ttipia nük bena argi eta zale. Hik zale dükan gaüza bakarra, mihia dük.

EGÜN BATEZ, Pedro zale abiatü zen exker aldera, kornerreko bandera izan
beharko zen leküala, egiazko futbol zelai bat izan balitz aüzoko lürrezko
karrikaren ordez.

Daniel atezainaren pareala heltü eta, gerri mugimentü batez alegia hüilantzen
zela egin züan Pedrok, hoinen artean balua ekürüarazi, Danielen gainetik
altxatü, hau jadanik aitzinatü zela haren atzamaiteko, eta emeki igaranarazi
borta gisa baliatzen zütuen bi
harrien artean.

_ Gol ! oihü egin züan
Pedrok, eta kirol
zelaiaren erdiala
lasterka joan zen
lagünek besoetan
hartzeko gisan. Bena
aldi hontan, nihor ere ez zen
igitü. Denak tiran ziren,
epizeriari so.

.

Leiho zonbait zabaltü ziren. Jentea agertü zen, karrika kanttuari so.

Borta zonbait klaskaka zerratü ziren. Ordüan Pedrok ikusi zütüan bi gizon Danielen aita bortxaz eramaiten, soldado andana batek mitraileta hari бүрүз ezari züela. Daniel hüilantü nahi izan zelarik, gizonetarik batek ekürüarazi züan esküa bularrean emanez.

_ Emeki hi, erran zeion.

Don Danielek semeari so egin zeion:

_ Ontsa begira ezak saltegia.

Gizonek jeepari бүрүз pusatü züen mementoan, esküa sakola batetan sartü nahi izan züan eta soldado batek berehala bere mitraileta altxatü züan:

_ Kasü ! oihü egin zeion.

Don Danielek erran züan :

_ Giltzak ttipiari eman nahi neitzon.

Gizonetarik batek besotik hartü züan:

_ Hortaz oküpatüko niz.

Soldadoak presoneraren galtzak ikertü zütüan eta herots metaliko bat agitü zen ; esküa sakolan sartü eta giltzak elki zütüan. Danielek aidez atzaman zütüan. Jeepa abiatü zen eta amak karrikala jin ziren tarrapataka, beren haurrak lepotik hartü eta etxera eraman. Pedro Danielen ondoan egon zen, jeepak abiatzean altxatü errautsaren erdian.

_ Zergatik eraman düe?

Danielek esküak sakoletan sartü eta giltzak tinkatü zütüan.

_ Ene aita diktatüraren kontra dük.

Pedrok hitz horik jadanik entzünik zütüan. Irratiak arrastiriez erabiltzen zütüan, üsü. Bena zer erran nahi züen ez zakian izigarri ontsa.

_ Zer erran nahi dü horrek ?

Danielek karrika hütsari so bat egin zeion eta ahapetik mintzatü, sekretüan bezala :

_ Nahi düela herria libro izan dadin. Militarrek gobernamentüa ütz dezaen.

_ Eta horrengatik dütüe soldadoek arrestatzen? Galtatü züan Pedrok.

_ Uste diat.

_ Zer eginen dük?

_ Ez dakiat.

Aüzo bat Danielengana hüilantü zen eta esküa biloetan pasatü zeion.

_ Zerratzen lagüntüko haüt, erran zeion.

PEDRO HÜRRÜNTÜ ZEN balua joz eta nihoz ez beitzen harekin karrikan txostakatzeko, joan zen lasterka beste püntara lanetik aita etxera ekarriko züan autobüsaren egürükitzeko.

Jin zelarik, Pedrok besoen artean hartü züan eta aita apaltü zen besarkatzeko.

_ Ama ez da orano sartürük ?

_ Ez, erran züan Pedrok.

_ Lüzaz txostakatü hiz?

_ Askitto.

Aitaren esküa senditü züan bere bürüaren ferekatzen eta atorraren kontra tinkatzen.

_ Soldado zonbait jin dira eta Danielen aita eraman düe.

_ Badakiat, erran zeion aita.

_ Eta nola ?

_ Telefonoz abisatü naüe.

_ Daniel epizeriaren nausi bilakatü da. Mentüräz orain honttoak emanen diztak, zion Pedrok.

_ Ez diat uste.

_ Jeep batetan eraman düe, filmetan ikusten diren horietarik bezalako batetan.

Aitak ez züan deüs erran. Hatsa barna hartü züan eta karrikari tristeki so egin zeion. Argia balin bazen ere orano, lanetik emeki ützültzen ari ziren gizonak baizik ez ziren ageri.

_ Uste düzü telebistan agertüko dela? Galtatü züan Pedrok.

_ Nor ? galtatü züan aita.

_ Don Daniel.

_ Ez.

Arrastiri hartan, hirurak mahainean jarri ziren eta nihor ez balin bazeion ere galtatü isilik egoitea, Pedrok ahorik ez züan zabaltü. Burasoak isilik jaten ari ziren. Bat-batetan, ama nigarrez hasi zen, herotsik egin gabe.

_ Zergatik Amak nigar egiten dü ? galtatü züan Pedrok.

Aitak semeari so egin zeion lehenik, gero bere emazteari, eta ez züan ihardetsi. Amak erran zeion :

_ Ez diat nigar egiten.

_ Norbaitek zerbait egin deizü?

_ Ez, erran zeion.

Isilik ürrenkü züen aiharia eta Pedro pijamaren jaunster a joan zen. Salara ützüli zelarik, haren burasoak besalkian tink-tinka jarririk ziren, beharria irratitik hüilan-hüilana, hartarik elkitzen zirela burrunba droleak, üsüan beno nahasiagoak soinüa arras apala zelokoz. Kasik asmatüz aita erhia ahoan emanen züala ixilarazteko, Pedrok berehala galtatü zeion:

_ Aita, diktatüraren kontra zira?

Gizonak semeari so egin zeion, gero emazteari eta biek gero so egin zeioen. Ordüan aita emeki bürüa apaltü eta altxatü züan, ados zela erakustez.

_ Zü ere preso eramamen zütüe?

_ Ez, erran züan aítak.

_Nola dakizü ?

_ Zorte hona ekarten beiteitak, ttipi, ihardetsi züan
irriño batekin.

Pedro jarri zen bizkarrez bortaren kontra, zoriontsü,
ez züelakoan ohealat igorten beste aldiez bezala.
Irratia arraheinki beha egon zen, entelegatzen iseatüz.
Irratiak erran züalarik: “diktatūra militarra”,
Pedrok bürüan berexirik kurritzen zeitzon gaüza güziak
puzzle batetan bezala biltzen ari zeitzola senditü züan.

_ Aita, galtatü zeion ordüan, ni ere diktatüraren kontra niz ?

Aitak bere emazteari so egin zeion, arrapostüa haren begietan idatzirik izan balitz bezala. Amak matela hazkatü züan eta irriño batekin ihardetsi zeion:

_ Hori ezin daiteke erran.

_ Zergatik ?

_ Haurrak ez dütük deüsen kontra. Haurrak haur dütük, sinpleki. Hire adineko haurrek eskolala joan behar die, lan hanitx egin, txostakatü eta burasoekin perestü izan.

Pedrori hau bezalako erranaldi lüzeak emaiten zeitzoen aldi güziez, isilik egoiten zen. Bena aldi hontan, soa irratian itzatürik, ihardetsi züan :

_ Bai, bena Danielen aita preso bada, Daniel ez da haboro eskolala joaiten ahalko.

_ Habil etzatera, ttipi, erran zeion aitak.

BIHARAMENEAN, Pedrok bi ogi zerra jan zütüan erreximentarekin, begitartea xahatü eta zale-zale eskolala abiatü zen, berriz ere berant ez heltzeko gisan. Bidean, zühain baten adarretan lotüa zen kometa urdin bat ikusi züan, bena jauzka aritzez ere, nihontik ez züan bildü ahal izan.

Txintxaren danga orano ari zen errejentsa sartü zelarik, txüt-txüta, jauntsi militarrean zen jaun batekin, medaila bat papoan, mustatxa grisa eta belaün zikinak beno beltzago ziren begilagünak.

Andereñoak erran züan:

_ Xütik, haurrak, xüt-xütik jar zitaie.

Haurrak xütitü ziren. Militarrek irriño bat egiten züan, mustatxa hortzetako esküilaren üdürikoa bitre beltzen pean.

_ Egün hon, haurrak, erran züan. Romo kapitaina niz eta gobernüaren partez heltzen nitzaizüe, erran nahi beitü Perdomo jeneralaren izenean, eskola honetako klase güzietako haurren kümitatzera idazlan baten egitera. Eijerrena idatziko düanak Perdomo jeneralaren eskütik beretik ükenen dütü ürrezko medaila bat eta xingola bat, hau bezalakoa, banderaren koloretakoa. Eta, haatik, Aberriaren Asteko desfilean harek dü ibiliko bandera.

Esküak bizkarrean eman zütüan, zankoak zabaltü jauzi ttipi batez eta lepoa gogortü bidarra doi bat goratüz.

_ Kasü ! Jar zitaie !

Haurrek sinetsi züen.

_ Ontsa, erran züan militarrek. Elki züen kaierak... Kaierak prest dütüzüe ? Ontsa ! Har züen arkatzak... Arkatzak prest ? Idatz ! Idazlanaren titulüa : « Ene familiak zer egiten düan arrastiritan »... Entelegatzen düzüe? Erran nahi beita zer egiten düzüen eskolatik ützültzean eta züen burasoek zer egiten düen lanetik landa. Jiten diren adiskideak. Zertaz mintzo diren. Zer dioen telebistari so egitean. Orhit etxekiko zaizüen güzia libertate osoz. Ados? Bat, bi , hiru, has zitae!

_ Gomatzen ahal da, Jauna? Galtatü züan haur batek.

_ Bai, ihardetsi züan kapitainak.

_ Bolalüma erabiltzen ahal da?

_ Bai mutikoa. Bistan da !

_ Osto laukitüetan idazten ahal da, Jauna?

_ Segürki.

_ Zonbat osto bete behar da, Jauna?

_ Bizpahiru.

_ Bizpahiru! harritü ziren haurrak.

_ Are, xüxentü züan militarrek, bat edo bi. Lot lanari!

Haurrek arkatza hortzen artean ezari züen eta selaurari so jarri ziren ikusteko ea goiargiaren txoria xilo zerbaitetarik eraitsiko zeien.

Pedrok bere arkatza usukitzen züan bena hitz bakar bat ere ez zeion elkiarazi. Södür ziloa karrakatü züan eta hartarik elki mokor bat mahain pean lotü. Juan, saihetseko mahainan, azüzkülüen kurruskatzen ari zen, bederazka.

_ Jaten dütük? Galtatü zeion Pedrok.

_ Zer ? erran zeion Juanek.

_ Azüzkülüak.

_ Ez. Mozten ditiat hortzekin eta gero tü egiten diat. Holaxe! Ikusten dük?

KAPITAINA mahainen artetik hüilantü zen, eta Pedrok gerrikoaren plaka gogor eta urre kolorekoa hüilaretik ikusi ahal izan züan.

_ Eta züek biek ez düzüe lanik egiten?

_ Bai, Jauna, erran züan Juanek, eta tarrapataka betezpalak xümürtü zütüan, mihia tiratü eta “A” handi bat izkiribatü idazlanaren hasteko. Kapitaina arbelari бүрүз joan zelarik eta errejentsarekin mintzatzen hasi, Pedrok Juanen ostoari so egin zeion eta galtatü:

_ Zer ezarriko dük?

_ Zerbait. Eta hik?

_ Ez dakiat, erran züan Pedrok.

_ Zer egin düe hire burasoek barda? Galtatü züan Juanek.

_ Beti bezala. Heltü dütüк, jan düe, irratia entzün eta etzatera joan.

_ Ene amak bardin.

_ Ene ama nigarrez hasi düк bat-batetan, erran züan Pedrok.

_ Emazteak beti nigarrez ari dütüк.

_ Ni iseatzen nüк seküla ez nigar egitera. Badik urte bat nonbait han ez dütala nigar egin.

_ Eta begian үкүbeila kaldü bat emaiten badiat eta ubel-ubela bilakatzen bada, ez düк nigar eginen ?

_ Eta zergatik hori eginen deitak, hire lagüna nizanez gero?

_ Bai, egia düк.

Biek arkatza ahoan ezari züen; anpula hilari eta mürrüko itzaler so egin zeien eta beren bürüa hüts-hütsa senditü züen, sosik gabeko eltzeitsü bat bezala. Pedro Juani hüilantü zeion eta ahapetik beharrialala erran zeion :

_ Diktatüraren kontra hiz?

Juanek kapitaina non zen kasü eman eta Pedrori bürüz makürtü zen:

_ Bistan dük, zozoa.

Pedro doi bat baztertü zen eta begi keinü bat egin zeion, irriño batekin. Gero, alegia idazten ari zela mintzatzen jarraiki zeion:

_ Bena haur bat hiz...

_ Zer axola dü?

_ Amak erran zeitan hurrek... hasi zen Pedro.

_ Beti hori erraiten die... Aita iparraldeala eraman die.

_ Danielena bezala.

_ Bai. Bardin.

Pedrok osto xuriari so egin zeion eta idatzi züana irakurri : « Ene familiak arrastirietan zer egiten düan. Pedro Malbràn. Siria Eskola. Hirugarren maila A ».

_ Juan, medaila irabazten balin badüt, saldüko diat futboleko balu baten erosteko, bost izarikoa, larrüzkoa, xuri-beltza.

Pedrok arkatzaren püntha ohogozü amñibatekin busti züan, hatsa barna hartü eta abiatü zen :
“Ene Aita lanetik etxera ützültzen delarik...”

ASTE BAT IGARAN ZEN, plazan zühain bat erori zen zahartürik beitzen; zikinontzien komioa bost egünez ez zen igaran eta illiak jenteen begietan kaskatzen ziren; Gustavo Martinez, pareko etxekoa, ezkontü zen eta aüzoen artean arroskila parteak banatü zütüan; jeepa ützüli zen eta Manuel Pedraza erakaslea eraman züen; erretorak ez züan iganteko meza eman nahi izan; eskolako mürrüan “erresistentzia” hitza agertü zen; Daniel berriz futbolearen hasi zen eta gol bat sartü züan bürüarekin eta beste bat bizkarrarekin; izozkien prezioa goiti joan zen eta Matilde Scheppek, bederatzi urteak bete zütüalarik, galtegin zeion Pedrori ahoan pott bat eman zeion.

_ Ertzotü hiz! oihü egin zeion Pedrok.

Aste horren ondotik, beste bat izan zen, eta egün batez militarra ützüli zen kopiekin, hontto pakete batekin eta jeneralaren argazkia züan egütegi batekin.

_ Adiskide maiteak, erran zeien. Idazlan izigarri eijerrak egin dütüzüe. Gük, militarrek, biziki maitatü dütügü eta , ene lagüenen izenean baita ere érdomo jeneralaren izenean, goretsi behar zütüet zinez. Ürrezko medaila ez da züen ikasgelarentzat bena beste batentzat, beste ikasle batentzat. Bena züen lantto maitagarrien saristatzeko, züetarik bakotxarii emanen deiot hontto bat, bere idazlana ohar batekin eta egütegi hau gure bürüzagiaren argazki batekin.

PEDROK HONTTOA JAN ZÜAN etxerako bidean eta arrastiri hartako aiharian aitari kontatü zeion:

_ Eskolan idazlan bat eginarazi deigüe.

_ Mmm. Zertaz ? galtatü zeion aitag eltzekariaren jatean.

_ “ Ene familiak arrastiriez zer egiten düan.”

Aitag kuilera azietaren barneala erorten ützi züan eta zopa xorta bat mahain dahailaren gaineala txapastatü zen. Amari so egin zeion.

_ Eta zer izkiribatü dük, ene maitila? galtegin zeion amak.

Pedro mahainetik joan zen kaieraren txerka.

_ Nahi düzüe irakur dezadan? Kapitainak zoriontü naü.

Eta erakutsi zeien non kapitainak tinta berdez idatzi züan « Zorionak ! Goresmenak hiri ! »

Kapitaina... Zoin Kapitaina ? oihü egin zeion aitag.

_ Idazlana eginarazi deigüna.

Burasoek beste behako bat egin zeioen alkarri eta Pedro irakurten hasi zen:

_ “Siria Eskola. Hirugerren maila...”

Aitag ekürüarazi züan :

_ Bai, ados, bena irakur ezak xüxenean hire idazlana, otoi !

Eta burasoek arraheinki behatü züela, Pedrok irakurri züan :

“ Ene aitak lanetik arrajiten denean, autobus geltokiala banoa haren egürükitzera. Zonbait aldiz, Ama etxen da eta Aita horra delarik, erraiten deio : Nola zira, nola igaran da egüna ? Ontsa, ihardesten deio Aitak, eta zuretzat, nola igaran da ? Ontsa erraiten dio Amak. Gero kanpora banoa futbolean aritzera eta bürüarekin golen sartzea maite düt. Gero, Ama horra da eta erraiten deit : Are, Pedrito, haügü jatera, ordüan mahainean jarten gira eta beti denetarik jaten düt eltzekaria salbü, ez beitüt maite. Gero, arrats oroz, ene ama eta ene aita beren besalkietan jarten dira eta xake joküan ari dira, eta nik ene eskolako lanak ürrentzen dütüt.

Eta xake joküan segitzen düe ohealat joateko tenorea arte. Eta gero, gero ez düt kontatzen ahal lokartzen beiniz.

Oharra: Idazlan honentzat sari bat emaiten badeitade, agian futboleko balu bat izanen da, bena ez Plastikozkoa.”

Pedrok bürüa altxatü züan eta aitamen irriñoa ikusi.

_ Ontsa, erran züan aitak, erosi beharko dügü xake jokü bat, zer hel ere.